

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **98/2022 Foru Agindua, apirilaren 13koa. Arabako kirol-erakundeei 2022an emakumeen kirola sustatzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartzea**

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 25. artikuluan arautzen du euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituztela emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko, bai aisialdiko kirol-modalitate guztietan, bai lehiaketakoetan, EAEn egiten diren praktika eta jarduera guztietan. Era berean, gehienbat emakumeek egiten dituzten kirol-modalitateentzako laguntza publikoak gehitu beharko dituzte.

Horregatik, Kultura eta Kirol sailak diruz lagunduko ditu Arabako kirol federazioei atxikitutako kirol erakundeei emakumeen kirola sustatzeko.

Arabako Lurralde Historikoko 2022ko aurrekontua betearazteari buruzko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauak 70201. G/341700/48100715 "Emakumezkoen kirolerako laguntza" 70-145 lerroa izeneko aurrekontu-saila du, 60.000,00 euro dituen esleiturik.

Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.) eta haren ondorengo aldaketan bidez, oinarri orokor arautzaileak onartu zituen, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatzeko.

Kirol zerbitzuko buruak egindako txostena ikusita.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe:

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako kirol erakundeak, 2022. urtean emakumeen kirola sustatzeko. Deialdia honekin batera erantsita doa.

Bigarrena. Deialdi honek hirurogei mila euroko (60.000,00 euro) gehieneko zuzkidura izango du, ondorengoetan adierazitakoaren arabera arautuko da: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.), eta hura aldatu zuen martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuan aurreikusitakoa, Kultura eta Kirol sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatu beharreko oinarri arautzaile orokorrak; Araba Lurraldeko dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; eta agindu honekin batera doan deialdian jasotakoaren arabera.

Hirugarrena. Gastu hori 70201. G/341700/48100715 "Emakumezkoen kirolerako laguntza" 70-145 ildoan, Arabako Foru Aldundiak 2022ko ekitaldirako duen gastu-aurrekontukoa, gehienez 60.000,00 eurokoa, erreferentzia zenbaki laburra: 105-1545/22.1.22.

Laugarrena. Organo eskudunak, Kirol Zerbitzuaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada, erakunde interesdunek eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Bostgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan aurreikusitako moduan banaka jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOean argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Dena dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar daskioke ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin daskioke bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz. 2022ko apirilaren 13a

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*

*ANA M. DEL VAL SANCHO*

*Kirol zuzendaria*

*ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ*

## I. ERANSKINA

### KIROL ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, EMAKUMEEN KIROLA BABESTEKO 2022AN

#### 1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdiaren helburua da dirulaguntzak ematea norgehiagoka bidez, Arabako kirol erakundeek emakumeen kirolaren garapena babes dezaten 2022an.

Euskal Autonomia Erkidegoko kirol federatua nabarmena da genero arrakala: 2021ean, emakumeen lizentziak guztizkoaren ehuneko 25,48 baino ez ziren. Gainera, emakumeek diziplina desberdinetan duten banaketak ere generoaren arabera banantze argia erakusten du: "femenino" agotzat jotzen diren kirolean edo halakotzat jotzen diren diziplinakoetan (gimnastika, hipika, boleibola eta neguko kirolak) emakumezkoak dira federatutako pertsonen ehuneko 50 baino gehiago.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarreko idazketaren 3.6 artikuluan jasotzen duenaren arabera, botere publikoek denboran ondo mugatutako berariazko neurriak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko. Zehazki, 25. artikulua dio Euskal herri administrazioek neurri egokiak hartu behar dituztela kirol modalitate guztietan emakumeek eta gizonen tratua eta aukera berdintasuna izango dutela bermatzeko, EAEn egiten diren praktika eta jardunaldietan, bai aisialdi bai lehiaketetan. Era berean, gehienbat emakumeek egiten dituzten kirol modalitateentzako laguntza publikoak handitu beharko dira. Era berean, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen indarreko idazketaren 2. artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoek, bere eskumen esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute eta emakumea maila guztietako kirol praktikan sartzeko eta kirol praktikak hautatzea estereotiporik gabe erraztuko duten baldintzak sustatuko dituzte. Halaber, bermatuko da tratua eta aukera berdintasuna dagoela emakumeen eta gizonen artean kirol modalitate guztietan, bai aisialdian bai lehiaketetan. Horregatik, gaur egun kirolaren arloan dagoen genero arrakalak irauten duen bitartean, beharrezkoa da ekintza positiboak bultzatzea, eskubide hori egikaritzean berdintasuna lortzen laguntzeko.

Hori guztia, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak eta Kultura eta Kirol Sailaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko modua aldatzea onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Dekretuak xedatutakoaren esparruan.

## **2. artikulua. Aurrekontu egozpena**

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da inolaz ere izan helburu horretara bideratu den zuzkidura baino handiagoa, hau da, 60.000,00 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2022ko gastu aurrekontuko "Emakumezkoen kirolerako laguntza" izeneko 70201. G/341700/48100715 partidaren kontura ordainduko da.

Dagoen zenbatekoa honela banatuko da:

- A) 30.000,00 euro "Emakumeak kirola egin dezala sustatzea" ri.
- B) 30.000,00 euro "Emakumeen kirol federatuari laguntza" ri.

Ataleko proiektuei emateko dirulaguntzak kalkulatu eta gero soberakina badago, balioespen batzordeak proposatu ahal izango du soberakin hori B) atalari ematea.

## **3. artikulua. Erakunde onuradunak**

Arabako kirol federazioak eta Arabako kirol federazio horiei atxikitako kirol klubak eta elkar-teak izango dira onuradunak.

Ez dira onuradun izango Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onetsi zituen Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian jasotzen diren baztertzeko egoeretan dauden erakundeak.

## **4. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak eta kontzeptuak**

Honako programa hauek jaso ahal izango dute dirulaguntza, bakoitzari esleitutako zenbatekoekin:

A) Emakumeak kirola egin dezala sustatzea. 2022ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean, biak barne, egindako jarduerak. Programa honetan honako jarduera hauek lagunduko dira:

- Solasaldiak, hitzaldiak, lehiaketak, ate irekiko jardunaldiak, informazio eta sentsibilizazio kanpainak eta antzeko beste batzuk, emakumeen kirol jarduera sustatzeko Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko hainbat erakundetako kideen artean.

Ekitaldi horiek kirola hastera, fidelizatza eta ikusaraztera bideratuta egongo dira, batez ere emakumeena, eta ez dute zerikusirik izango erakunde eskatzaileek antolatutako eskola kiroleko programekin, eskola jarduera fisikoarekin, eskolaz kanpoko jarduera fisikoekin, entrenamenduekin eta lehiaketa federatuekin.

Proposamenak 2022ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era (bi egun horiek barne) bitartean gauzatu behar dira, eta proposamen bakoitzak gutxienez ordubeteko jarduera izan behar du, eta horri kirola egiteko denbora gehiago gehitu dakioke, bai eta jardueraren osagarri ere, emakumeak kirolean aritzea sustatzen duten elementuak eman edo banatu (emakumezko jokalarien argazki eskainiak, posterrak, horma irudiak, emakumezkoen kirol lehiaketetarako sarrerak eta antzeko jarduerak).

- Emakumeen kirola sustatzeko txapelketak edo jarduerak. Kanpoan geratzen dira lehiaketa ofizial guztiak, bai eta liga erregularreko lehiaketak edo edozein federazioren egutegietan sartutakoak ere. Era berean, kanpoan geratuko dira Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren beste deialdi batzuetan diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Kanpoan geratzen dira erakunde eskatzaileetako bazkideei soilik zuzendutako jarduerak.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptutzat joko dira, puntuak kalkulatzeko soilik, diruz lagundutako jarduerari dagozkienak, honako kontzeptu hauei dagozkienez:

a) Arbitraje taldeko langileak, haien joan-etorriak barne.

b) Entrenatzaileen, kirol monitoreen, laguntzaileen eta jarduera egiteko beharrezkoak diren gainerako langileen gastuak.

Zerbitzua kanpora ateraz gero, fakturak jarduera horretan espezializatutako enpresenak eta/edo profesionalenak izango dira (erakunde eskatzaileak berariaz kontratatutako pertsonak sartzen dira), eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira antzeko ezaugarriak dituzten federazio, klub, kirol elkarte eta irabazteko xederik gabeko beste erakunde batzuetatik datozenak.

c) Kanona, trafiko tasak eta aplikagarri diren gainerako tasak, abalak ez.

d) Laguntza medikoaren, azterketa medikoen, anbulantziaren, salbamenduaren, albaitaritza laguntzaren, ferratzaileen, irrati loturen, dopinaren aurkako kontrolaren eta abarren gastuak, zeinak guztiak baitira jarduerarako espezifikokoak.

Zerbitzua kanpora ateraz gero, fakturek jarduera horretan espezializatutako enpresa eta/edo profesionalenak izan behar dute, eta, beraz, kanpoan geratuko dira federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko ezaugarriak dituzten irabazteko xederik gabeko beste erakunde batzuetatik datozenak.

e) Jardueran parte hartzen duten langileen joan-etorriak garraio kolektiboan (jokalariak, entrenatzaileak eta ordezkariak). Kanpoan geratzen dira gainerako joan-etorriak.

f) Jarduerarako behar den eta hari egotzi ahal zaion material suntsikorra eta erregaia alokatu edo erostea.

g) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko berariazko kirol material, ekipo eta instalazio ez suntsikorra alokatu edo eskuratzea.

h) Jarduerarako aseguru berezia.

i) Materiala eramatea eta muntatzea.

j) Megafonia alokatzea eta lokuzioa.

k) Kartelak (diseinatzea, inprimatzea, banatzea, fotolitoak eta gainerako inprimatze prozedurak) eta publizitatea komunikabideetan.

Honako gastu hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat joko, puntuazio baremoaren arabera laguntzaren kalkulua egiteko; aldiz, konputagarriak izango dira jardueraren guztirako gastuak zenbatzeko:

a) Entrenamendurako eta/edo lehiaketetarako ekipamenduak, hala nola kamisetak, kulotak, kirol jertseak, txandalak, bainu jantziak, kimonoak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako materialak, baita norberak erabiltzeko materialak ere, hala nola barrabil babesak, hortz babesak, betaurrekoak, puntak, kaskoak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako elementuak.

b) Ordezkaritza, protokolo eta antzeko beste ekintza batzuen gastuak.

c) Kirolariak kontratatzea (ordainsariak, dietak eta antzeko gastuak).

d) Instalazioak mantentzearen dietak edo ordainsariak.

e) Ez dira kontuan hartuko kirolarien, entrenatzaileen eta ordezkarien (jardueran sartzen ez direnak), zuzendarien, senideen eta ikusleen joan-etorriak.

f) Jarduera egiteko beharrezkoak eta egozgarriak diren instalazioak prestatzeko edo egokitzekeo gastuak.

g) Garaikurrak.

h) Parte hartzaileentzako sariak eskudirutan, parte hartzaileentzako sariak "gauzaz" eta antzeko beste batzuk.

i) Ikuztegi gastuak.

j) Antolaketako, zuzendaritza teknikoko eta zuzendarien joan-etorrietako gastuak.

k) Bulegoko materiala, fotokopiak, material informatikoa, posta, telefonoa, web orria sortu eta mantentzea, etab.

l) Kultura edo animazio jarduerak.

m) Instalazioak eta/edo materiala zaintzeko eta kontrolatzeko gastuak.

n) Proban parte hartzen duten pertsonentzako ostatu gastuak.

B) Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea.

Dirulaguntza emango da kirol erakunde eskatzaileek emandako emakumeen lizentzia federatuen kopuruaren arabera, kirol federatuan berdintasuna lortzen lagunduko duen ekintza positiboko neurri gisa.

Diruz lagundu ahal izango dira kirol klub eta elkarteek dituzten emakumeen federazio lizentziak (jokalari, entrenatzaile eta ordezkariak), zeinak kasuan kasuko euskal federazioak 2021ean emanak izan behar baitira. Baldin kasuan kasuko euskal federaziorik ez badago, Espainiako federazioak emandakoak aintzat hartuko dira.

"Izapidetutako edo egindako" federazio lizentzien barruan multzo hauek bereizten dira:

Finantzaketa irizpideak ezartzeko, honako banaketa hau hartuko da kontuan:

1. maila. Beren jardunean honako hauek eskatzen dituzten modalitateak: entrenamenduak maiztasunarekin egitea (egun batzuetan astean) eta ia astero lehiaketa izatea, horrek dakarren antolaketa nabarmenarekin.

Atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, txirrindularitza, kirol egokituak, futbola, gimnastika, hockey-a, euskal kirol eta jokoak, igeriketa, euskal pilota, errugbia, mahai tenisa eta boleibola.

2. maila. Entrenamendua maiz egitea eskatzen duten modalitateak, nahiz eta hori sarri askotan ez egon klubaren menpe, baizik eta kirolarien nahiaren menpe. Bestalde, lehiaketa maila nabarmen jaisten da aurreko apartatukoaren aldean; izan ere, sarri askotan lehiaketak noizean behingo kirol topaketa batzuk eta Espainiako txapelketa batzuk baino ez dira izaten. Horrek guztiak ez du eskatzen antolaketa nabarmenik. Maila honetan sartzen da arabar eta aiarar bola jokoa, Euskal Herriko bertako modalitateei dagozkien diziplinak direlako (bertako kirol modalitateak sustatzeko kirol federazioei arreta eta laguntza emateko betebeharra ezartzen du Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak 6.3. artikuluan).

Xakea, badmintona, arabar eta aiarar bola jokoa, eskrima, halterofilia, judoa, karatea, bo-rroka, padela, patinajea, squash-a, taekwondo-a, tenisa, arku tiroa eta triatloia.

3. maila. Entrenamendu arautuak eta maiztasun handikoak ez dituzten modalitateak; horiek praktikatzea interesdunen esku dago. Lehiaketa noizean behin izaten da, eta horrelakoetan, aurreko ataletakoen aldean, oso txikia izaten da klubaren eskakizun maila. Hori gorabehera, horietako modalitate/diziplina batzuetan, aisialdirako joera nabarmena ikusten da.

Urpeko jarduerak, automobilismoa, beisbola, billarra, bola jokoa, boxeoa, ehiza, aire kirolak, negu kirolak, uretako eskia eta motonautika, golfa, hipika, mendia, motoziklismoa, petanka, piraguismoa, tiro olinpikoa eta bela.

## 5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Kirol klub edo elkarte bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du, 4. artikuluko A eta B atalak barne. Kirol federazioek artikuluko horretako A) atalerako bakarrik aurkeztu ahal izango dute eskabidea.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 14.2 artikuluan xedatutakoa betez, betiere honako hauek behartuta egongo dira nahitaez telematikoki aurkeztera: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko entitateak; diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, bai eta jarduera hori dela eta egin behar dituzten izapideetarako ere; eta Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartua dagoen interesdun baten ordezkari direnak. Hortaz, eskaerak formalizatzeko era bakarra izango da: egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen trámite específico bidez.

Horretarako, aldez aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>. Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

3. Eskaerak osorik bete ezean edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko hamar egun balioduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, Kultura eta Kirol Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

4. Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakunde horrek horren aurka egiten badu; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

#### **6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak**

Laguntza bi ataletan banatzen da (A eta B), eta atal horiek ez dira baztertzailerak: horietako baterako edo bietarako eskabidea aurkeztu ahal izango da. Eskaera honela egingo da:

A. Emakumeak kirola egin dezala sustatzea:

1. Horretarako prestatutako inprimaki elektronikoa bete.
2. 8. artikuluan deskribatutako irizpide orokorren egiaztagiria erantsi, betetzen badira.

B. Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea:

1. Horretarako prestatutako inprimaki elektronikoa bete.
2. Dagokion Arabako kirol federazioaren ziurtagiria erantsi, deialdi honen II. eranskineko ereduaren arabera (kirol klubak edo elkarteak garatzen dituen modalitate adina federazio ziurtagiri aurkeztuko dira).

#### **7. artikulua. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko 15 egun balioduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

#### **8. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak**

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

4. artikuluan adierazitako programa bakoitzaren zenbatekoak finkatzeko, honako irizpide orokor eta berezi hauek hartuko dira kontuan:

## 1. Irizpide orokorrak:

Erakunde eskatzaileek kirol jardunean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko konpromisoa dutela egiaztatzea baloratuko da. Baldintza hori honela egiaztatu ahal izango da:

– Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonetako edo entitateko langileetako baten batek, hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa izatea, gutxienez 20 ordukoa.

– Erakundeak berdintasun plan bat izatea.

Erakundeak egoera horietakoren bat egiaztatu ahal badu, irizpide partikularren atalean lortutako puntuazioa 1,15ez biderkatuko da.

## 2. Irizpide partikularrak:

A) Emakumeak kirola egin dezala sustatzea.

1. Zenbatekoa zehazteko, puntuak honako puntuazio baremo honen arabera banatuko dira:

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUEN AURREKONTUA	PUNTUAK
0,01 eta 2.500,00 euro artean	5
2.500,01 eta 5.000,00 euro artean	10
5.000,01 euro eta 7.500,00 euro artean	15
7.500,01 eta 10.000,00 euro artean	20
10.000,01 eta 12.500,00 euro artean	25
12.500,00 euro baino gehiago	30

2. Dirulaguntzak banatzeko puntuazioen sistema erabiliko da. Horretarako, 2. artikuluko A) atalean zehaztutako zenbatekoa erakunde eskatzaile guztiek puntuazio baremoa aplikatetik lortutako puntu guztien baturaren artean zatituko da. Horren emaitza puntuaren balioa izango da. Puntuaren balioa eta erakunde bakoitzaren puntu kopurua biderkatzearen emaitza izango da ateratzen den laguntza.

3. Aurreko apartatuan lortutako kopuruari honako muga hauek ezarriko zaizkio:

– Jardueraren guztizko gastuak ken jardueraren guztizko diru sarrerak eragiketarik ateratzen dena.

– Erakunde eskatzaileak adierazi eta "Eskatutako zenbatekoa" laukitxoan jarritakoa.

– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

– 10.000,00 euroko muga orokorra.

4. Muga horiek aplikatu ondoren, erakunde eskatzaile guztiek jaso beharreko zenbatekoaren batura deialdiaren 2. artikuluko A atalerako finkatutako zenbateko osoa baino txikiagoa bada, bigarren banaketa bat egingo da soberako zenbatekoarekin aurreko atalean ezarritako muga ekonomikoetara iritsi ez diren erakundeen artean.

Bigarren banaketa horretarako, soberako kopurua zatituko da aurreko atalean ezarritako muga batera ere iritsi ez diren erakundeen puntu kopuruarekin; horrela, puntuari dagokion bigarren balio bat lortuko da. Puntuaren bigarren balio hori biderkatu egingo da erakunde bakoitzari emandako puntu kopuruarekin. Horrela, bigarren banaketa horretan esleitu beharreko diru kopurua lortuko da, eta lehen banaketari gehituko zaio.

Soberakin ekonomikorik badago, aurreko paragrafoan deskribatutako eragiketa errepikatuko da, harik eta deialdiaren 2. artikuluko A atalean finkatutako gehieneko kopurura iritsi arte, edo erakunde guztiak aurreko ataleko mugaren batera iritsi arte.

**B) Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea:**

Kirol klub edo elkarte bakoitzari emango zaion laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, zatiketa egingo da 2. artikuluko B atalean jasotako zenbatekoaren eta eskaera guztiek lortutako puntu guztien artean. A atalean soberakinik badago, B atal honetara bideratu ahal izango da, hasieran esleitutako kopurua handituta.

Zatiketa horrek puntuaren balioa emango digu. Kirol klub edo elkarte eskatzaile bakoitzaren puntuekin biderkatuta, bakoitzari emandako laguntzaren zenbatekoa lortuko digu.

Puntuak taula honen arabera kalkulatu dira, 2021. urtean emandako emakumeen lizentzia federatuen kopuruaren arabera:

LIZENTZIEN KATEGORIA	PUNTUAK, LIZENTZIA BAKOITZEKO
1. MAILAn emandako emakumeentzako federazio lizentzien kopurua	15
2. MAILAn emandako emakumeentzako federazio lizentzien kopurua	5
3. MAILAn emandako emakumeentzako federazio lizentzien kopurua	1

**9. artikulua. Ebazpena**

1. Eskaerak Balorazio Batzordeak aztertuko ditu. Batzordeburua Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta aipatutako zerbitzuari atxikitako teknikari bat. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko teknikari bat izango da idazkaria, hitza izango duena, baina botorik ez.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

2. Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epe horretan esanbidezko ebazpenik hartzen ez bada, interesa duten erakundeek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenak jaso beharko du eskatzaileetako zeini ematen zaion dirulaguntza eta gainerako eskaeren berriazko ezespina. Bereizita adieraziko da zein den 4. artikuluko A eta B atalek ematen duten dirulaguntzaren zenbatekoa, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta dirulaguntza emateko baldintzak ere.

4. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 43. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

**10. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea**

1. Dirulaguntzaren B) zatia ebazpena emandakoan ordainduko da.

2. Erakunde onuradunak justifikazioa aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntzaren A) zatia, betiere laguntzaren xede den jarduera amaitu ondoren eta 2022ko urriaren 14a baino lehen, egun hori barne.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, nahitaez; horretarako, egoitza elektronikora jo beharko da, "área personal" bidez deialdiaren espediente espezifikoan, "Nire espedienteak" atalean.



Justifikazioa justifikazio kontu sinplifikatu baten bidez egingo da, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileak onetsi zituen azaroaren 12ko 50/2019 Dekretuaren 11.3 oinarrian ezarritakoaren arabera. Justifikazio horretan, dokumentazio hau erantsiko da:

a. Jardunaren justifikazio memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena. III. eranskina. Memoria horretan, sexuaren arabera banakatutako informazioa eman beharko da egindako jardueraren azken onuradunei edo erabiltzaileei buruz, erakundearen titularrei eta langileei buruz, bai eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundearen plantillari buruz ere.

b. Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan hartzekoduna den pertsona fisiko edo juridikoa, gastuen agiria edo ordainagiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data identifikatu behar dira. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita. IV. eranskina.

Bakar-bakarrak aurkeztu beharko dira faktura edo agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 1.000,00 euro gainditzen badute (BEZa aparte). Era berean, goian aipatutako fakturen ordainagiriak aurkeztu beharko dira, 1.000,00 eurotik gorakoak (BEZa aparte).

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagirik:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Orobat, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiriak, PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitzaren kokalekuko zerga administrazioaren ebazpena aurkeztu beharko da. Ebazpen horretan, onartuta egongo da erakundearen izaera soziala, BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikuluan jasoa, Arauaren 13. apartatuko 20. Bat artikuluan jasotako zerga salbuespena aplikatzeko ondorioetarako.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren frogagiri hauek onartuko dira:

- Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztu beharko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituena.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

– Erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gunee-takoak, autobideetakoak, bidaiak txartelak eta abar) edo fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigi-luarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2022ko ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Jarduera egin ondoren, edozein aldaketa gertatzen bada gastu eta inbertsioen zerrenda sai-lkatuan aurkeztu eta jasotako datuetan, eta aldaketa horrek eskaeran aurkeztutakoekiko aldaketa badakar, eta datu horiek dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartu baziren, berriz kalkulatu-ko da dirulaguntza, deialdi honen 8. artikuluan jasotako irizpideekin bat etorritik, eta ezin izango da inolaz ere hasieran emandakoa baino handiagoa izan.

c. Erantzukizunpeko adierazpena. V. eranskina.

#### **11. artikulua. Bateriaezintasunak**

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa berarentzat emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagundutako programaren edo programen kostua gainditzen ez badu.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzzaileari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik. Horien guztien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta, nolana ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

#### **12. artikulua. Publizitatea**

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: [www.araba.eus](http://www.araba.eus).

3. Herritarrei diruz lagundutako jardueraren berri emateko erakunde onuradunak egiten dituen liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira. Gainera, publizitate horretan hizkuntza eta irudiak berdintasunez eta sexismorik gabe erabili beharko dira, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabeta bermatu.

#### **13. artikulua. Erantzukizunak**

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute deialdi honen xede diren jarduerak egitea- ren erantzukizuna, bai eta haiek egin ahal izateko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatzea ere.

#### **14. artikulua. Interpretazioa**

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du deialdi honen interpreta- zioaren inguruan sortzen den edozein zalantza.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	<b>Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea (II. Eranskina) Federazioaren Ziurtagiria</b>	<b>2022</b>
	Apoyo al deporte femenino federado (Anexo II) Certificado Federación	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

FEDERACIÓN ALAVESA DE	<b>ARABAKO FEDERAZIOA</b>
-----------------------	---------------------------

**ZIURTATZEN DU ■ CERTIFICA**

hemen zehazten den kirol klubak edo elkarteak  
honako datu hauek izan dituela 2021ean:

Que el club o agrupación deportiva indicada ha  
tenido los siguientes datos en el año 2021:

Kirol kluba edo elkartea ■ Club o agrupación deportiva	IFZ ■ NIF

KONTZEPTUA ■ CONCEPTO	Kop. ■ N°
<b>Izapidetutako eta/edo emandako emakume <u>JOKALARIEN</u> lizentzia federatuen kopurua</b> Número total de licencias de <u>JUGADORAS</u> federadas tramitadas o expedidas. <b>2021</b>	
<b>Izapidetutako eta/edo emandako emakume <u>ENTRENATZAILE</u> lizentzia federatuen kopurua</b> Número total de licencias de <u>ENTRENADORAS</u> federadas tramitadas o expedidas. <b>2021</b>	
<b>Izapidetutako eta/edo emandako emakumeen <u>BESTELAKO LIZENTZIEN</u> kopurua</b> Número total de <u>OTRAS LICENCIAS FEMENINAS</u> federadas tramitadas o expedidas. <b>2021</b>	

Federazioaren  
ordezkaria  
Representante  
de la federación

\_\_\_\_\_

Ordez kariaren sinadura  
Firma del/la representante

\_\_\_\_\_

ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA  
SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA

Orria ■ Hoja 1/1



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

**Emakumeen Kirola A Atala.**  
**Memoria. III. Eranskina**  
**2021-2022**

Deporte Femenino. Apartado A.  
Memoria. Anexo III

**EMAKUMEEN KIROLA LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA - 2022. A ATALA.**  
**AYUDAS PARA APOYAR EL DEPORTE FEMENINO - 2022. APARTADO A**

**Eskatzailea / Solicitante:** \_\_\_\_\_


Jarduerari Buruzko Datuak / Datos de las Actividades	Zenbatekoa / Importe
a) <b>Izena / Nombre</b>	<b>EMAKUMEEN KIROLA DEPORTE FEMENINO</b>
b) <b>Instalazioa / Instalación</b>	
c) <b>Partehartzaile kopurua / Número Participantes (Gizonak/Hombres)</b>	
d) <b>Partehartzaile kopurua / Número Participantes (Emakumeak/Mujeres)</b>	
e) <b>Jardueraren izena / Nombre de la actividad</b>	

**JARDUERAREN DESKRIBAPENA / DESCRIPCIÓN DE LA ACTIVIDAD**

**HELBURUAK BETETZEA / CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS**

Kultura eta Kirol Saila  
Departamento de Cultura y Deporte



 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p><b>Emakumeen Kirola Laguntzeko dirulaguntza V Eranskina.</b></p> <p><b>2022</b></p> <p>Subvención para Apoyar al Deporte Femenino Anexo V</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila</p>

<b>ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA</b>	<b>DECLARACIÓN RESPONSABLE</b>
-------------------------------------	--------------------------------

Entitatearen izena:	Nombre de la entidad:

**ADIERAZTEN DU**

*Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagiri guztiak erraztuko ditu; gainera, eskabidea aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen du.*

*Espedienteari erantsitako fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela dira, jatorrizkoak elkarrearen esku daude eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu, hala eskatzen zaionean Entitateak EZ du soldatapeko langilerik.*

**DECLARA QUE**

Los datos presentados son ciertos y se compromete a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se le solicite con el fin de analizar su solicitud.

Los ficheros que se incorporan al expediente son imagen fiel de los originales, que éstos obran en su poder y que los pondrá a disposición de la Diputación Foral de Álava cuando así sea requerida

.....  
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

**Sinadura ■ Firma**

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitu ezin izango da gertaera horien berri jakiten den unetik. Sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

**Entitatearen zigilua ■ Sello de la entidad**

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas)

Orria ■ Hoja 1/1